



euskarabildua
AUKERA BERRIAK SAREAN

Curriculum

Katrin Oddsdóttir

Katrin Oddsdóttir, 2011an Islandiako konstituzio berriaren zirriborroa egin zuen Konstituzio Kontseiluko hogeita bost kideetako bat izan zen. Zirriborro honen osaketan erabilitako metodo demokratikoei esker eta sare sozialen bitartez gizartearen parte hartzea ahalbideratzeagatik, Kontseiluak burututako prozesuak mundu mailako onarpena lortu zuen. Oddsdóttir kazetaria eta erredaktorea izan zen Rettur abokatu taldean lanean hasi aurretik –Adalsteinsson & Partners Islandiako abokatu bufetea, errefuxiatu, haur eta desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen alde lan egiten duen taldea. Gaur egun Errefuxiatuen Legedia eta Zuzenbide Konstituzionaleko klaseak ematen ditu Reykjavikeko Unibertsitatean eta Islandiako Elkarte Konstituzionaleko presidentea da, Islandiako konstituzio berriak indarra hartu dezan lanean diharduen gobernu kanpoko erakundea.